

# Oinarrizko errenta eta koronabirusaren krisia: gelditzera etorri den eztabaida?



**GORKA MORENO MÁRQUEZ**  
EHU-KO IRAKASLEA

**S**usmoa dut koronabirusaren krisia dela eta, lur azpian edota bigarren mailan kokatzen ziren hainbat gai azaleratu direla. Pandemia honek mahai gainetan jarri ditu askorentzat oso ezagunak ez diren –gutxienez sakonean– hainbat gizarte-errealitate eta problematika. Hainbat eremutan ezagunak baldin baziren ere, egun hauetan ia-ia *mainstream* izatera pasa dira: gizarte politiken garrantzia, estatua eta ekonomiaren arteko beharrezko harremana, zaintza lanen balioa, etxerik gabekoen egoera eta bizi-baldintzak, eta abar.

Eta agerian gelditu diren errealitate zahar-berri horien artean, oinarrizko errentaren ideia daukagu ere. Pandemia honen ondorioetako bat jende asko enplegurik gabe gelditu dela eta geldituko dela izan da. Pertsona eta familia horien beharrezkoak asetzea gizartearen inperatibo bezala agertu zaigu. Beste era batera esanda, momentu honetan gure gizarteak eta ekonomiak, egoera honi aurre egiteko eta ahal den eta azkarren ekonomia (ber)pizteko dirua behar dute, dirua zirkulatzen jarri behar da.

Oinarrizko errentaren eztabaida moda iheskor bat ez izatea da erronka. Bultzada aprobetxatu nahi bada, eztabaida ondo zehaztu behar dugula uste dut

Hori epe motzera begira, baina epe ertain zein luzea kontuan hartzen badugu enplegua eta honen etorkizuna da benetan ezbaian agertzen dena, lan prekarizazioa edota iraultza teknologikoa dela eta. Era batera edo bestera agertzen zaigun galdera da nola bizi era duin batean enplegurik ez dagoenean edo enplegu horrek ez dizkigunean oinarrizko bizi-baldintzak bermatzen.

Momentu hauetan oinarrizko errentaren eztabaida moda iheskorra ez izatea da erronka. Bultzada aprobetxatu nahi bada, eztabaida ondo zehaztu behar

dugula uste dut. Eta honetan ados baldin bagaude –*nora joan* nahi dugun–, zer lortu nahi dugun; argi izan behar dugu ere *nola* –ideiaren difusioa eta dibulgazioa– gauzatu daitekeen.

Nire planteamendua nahiko irekia izango litzateke eta gutxieneko batzuk adostea izango luke helburu. Ez gara gutxi diru-sarrerak lan merkatutik at –gutxienez zati batean– egon behar direla pentsatzen dugunok. Ideia horren inguruan aldeko koalizio askotarikoa sortu daitekeela uste dut. Horrela bada, gutxieneko batzuk ezarri beharko lirateke eta ez baztertzailak diren printzipio itxi eta dogmatikoak.

Eztabaida ez nuke era dikotomikoan aurkeztuko, oinarrizko errenta bai ala ez. Are gutxiago, oinarrizko errenta eta gutxieneko errentak kontrajarriak bezala plazaratuz eta hauen arteko ezberdintasunak –baldintzapekotasuna– azpimarratuz. Laburbilduz, hasi gaituzen etorkizunean pentsatzen, gaur egungo krisiak abaguneak eskaintzen ditu oinarrizko errentaren ideiarekin inguruko eztabaida zabaltzeko. ●



## KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTA

la ezer kontsumitzen ez duen eraikina  
(Near Zero Energy Building irizpideen arabera birgaitutako lehena Gipuzkoan)

